


DIRU ITURRIAK

Web gune bat bakarrik izaten hasiko gara. Hortik, gure bezeroak nahi dituzten bidaiak kontratatu ahal izango dituzte, beraz, ez dugu lokal baten alokairuaz edo erosketaz oraindik arduratu behar. Bezero eta etekin gehiago lortzerakoan, lokal bat alokatzearen ideia proposatuko dugu, bezeroek haien bidaiak zuzenean erreserbatzeko. Hasieran, bakarrik Espainia, Frantzia, Grezia, Portugal eta Alemaniara joaten diren bidaiak eskainiko ditugu; eta 80.000€ inguruko diru iturriak behar ditugu. Edukiko ditugun diru iturriak 5 alde desberdinetatik etorriko dira:



<https://www.bbva.com/es/es/innovacion/ayudas-y-subvenciones-para-los-jovenes-emprendedores/> BBVA %31.3

40 urtetik beherako enpresaburu berriei zuzenduta dago. Eta **25.000€** eta 75.000€ arteko partaidetza-maileguak, proiektuak hasierako fasean behar dituen aktibo finkoen eta zirkulatzailaren erosketa finantzatzeko balio du. Eta **baldintza** batzuk bete behar dira. Hala nola, Nortasun juridiko propioa duen pyme bat izatea, eskaera egin aurreko 24 hilabeteetan eratua eta Espainian oinarritua (bakoitza).

<https://www.mintur.gob.es/es-es/gabineteprensa/notasprensa/2023/paginas/20230503-ayudas-enisa.aspx> MINTUR espainiako gobernu %31.3

Espainiako gobernu Pyme lerroa dauka eta **25.000€** eta 1,5 milioi euro arteko laguntzak emango dira, bermerik gabe, enpresa txiki eta ertainek lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sortzen laguntzeko sustatutako proiektuetarako (bakoitza).

<https://www.santanderconsumer.es/simplefinance/blog/tu-futuro/emprendimiento/post/financiamiento-emprendedores-cat%C3%A1logo-recursos-> SANTANDER %5

Europako Berrikuntza Kontseiluaren azeleragailuak 2,5 milioi eurorainoko dirulaguntzak eskaintzen dizkie pyme-ei, enpresa txiki eta ertainei, hazten ari diren enpresei eta ekintzaileei proiektu berritzaileetarako, baita mentoria-zerbitzuetarako eta adituen orientazio-zerbitzuetarako sarbidea ere, besteak beste. (denontzat) **4.000€** erabiliko ditugu.

<https://www.vavesten.com/gestion-de-subvenciones-para-jovenes-emprendedores-en-el-pais-vasco> GAZTENPRESA %25

Gaztenpresa programarako baldintzak 18 eta 35 urte bitarteko gazte ekintzailea izatea, enpresa-proiektu bideragarria izatea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eta azken 2 urteetan enpresak sortzeko beste laguntzarik jaso ez izana dira. Aldiz, laguntzaren zenbatekoa gehienez **20.000€** enpresako (bakoitza) da.

<https://ayuda-social.es/ayudas-emprendedores-pais-vasco-euskadi/>

EUSKADIKO

EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK %7.5

Euskadiko ekintzaileentzako laguntzen baldintzak Enpresa-jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) izan beharko du egoitza soziala eta fiskala. Gainera, lantokia Euskal Herrian ere egon behar da. Eta laguntzaren zenbateko orokorra 2.500 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko, baina handitu egin daiteke kasu zehatzetan. Zenbateko hori %15 handituko da onuraduna 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada eskaera aurkezteko unean, eta beste %15, berriz, emakumea bada. Ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideen kasuan, dirulaguntza ez da inola ere **6.000** eurotik gorakoa izango bazkide guztientzat.

Hau aztertuta, gure diru-sarrera nagusiak BBVA eta Espainiako gobernua (mintur) izango direla baieztatu dezakegu, eta, ondoren, GAZTENPRESA. Izan ere, Espainiako Gobernuak eta BBVAk 25.000 euroko dirulaguntza ematen dizkigute bakoitzak; GAZTENPRESA-k, berriz, 20.000 euro ematen dizkigute. Eta beste aldetik gure eskura ditugun beste diru-sarrera batzuk erabiliko ditugu.

Ditugun diru sarrera bakoitzak **ehuneko** bati lotuta dago, bai BBVA bakuaren diru laguntzak, bai Espainiako Gobernua-renak, %31,3-ko parte hartzea dute, hau da, 25.000 euroko parte hartzea dute. Beste aldetik, GAZTENPRESA %25-ko diru laguntzak ematen dizkigu, hau da, 20.000€. Eta azkenik, Euskadiko pertsona ekintzailetarako laguntzak daude, 6.000€-koak direnak, hau da, %7,5-koak, eta SANTANDER bankuarenak, %5an parte hartze duela, 4.000€-ko laguntzak ematen.

Ondoren, gure diru sarrerak dituen **baldintza eta betebeharrak** azalduko ditugu. Gutxieneko adina 18 urtekoa da, eta gehienekoa 35 urtekoa da. Gainera, BBVA-k Espainian oinarritutako enpresa izatera behartzen digu, hau da, Espainian sortuta egon behar da. Euskadiko pertsona ekintzailetarako laguntzak 2.500€ ematen du pertsona bakoitzeko, eta %15ean igotzen da 18 eta 30 urteen artean bazaude eta emakumea bazara, 6.000€-etara heltzen bazkide taldean.